

## JAI ALAI WINTER SERIES 2022. Aurkezpena.

Dakizuen moduan, Zesta Punta profesionalaren egutegia uda sasoirako mugatuta egon da azken urteetan baina Daniako frontoiaren itxierak aukera berriak ireki ditu. Horiek aztertu eta proiektu bat zehazteko beharra ikusi dugu. Zesta-punta maite dugu eta argi ikusten dugu denon artean urte osoko denboraldi luzeago bat sortu behar dugula. Urte osoko jarraikotasuna izango duen zirkuitu bat, kirol honi sendotasuna eta bultzada emango dizkiona.

Gernika Jai Alai Professionaletik geure ahalegina egin nahi dugu, 2022 honetan JAI ALAI WINTER SERIES txapelketa antolatuz. Lehen pausu bat izatea espero dugu, Euskal Herrian bertan Zesta-Puntaren indartzea lortzeko bidean. Eskerrak eman nahi dizkiegu proiektu honi babes eman dioten erakunde pribatu zein publikoei, beraiek gabe ezin izango ginelako gaur aurkezpen honetan izan. Zesta Puntarekiko grina eta konpromisoa erakutsi dute. Bereziki, Bizkaiko Foru Aldundiak, Laboral Kutxak eta EITB Mediak.

### JAI ALAI WINTER SERIES 2022

Zesta denboraldia neguko txapelketa batekin osatu nahi dugu. Txapelketa handi bat da, ligaxka formatua izango duena. Sei bikote lehiatuko dira, bi multzotan banatuta. Euren arteko norgehiagoken emaitzek erabakiko dute hurrengo faserako sailkapena. Multzo bakoitzeko, puntu gehien lortzen dituzten bi bikoteak izango dira finalerdietan. Formatu honekin, pilotarientzat txapelketa lehiakor eta estu bat lortu nahi dugu, eta zaleek bikoteen arteko partiduekin goza dezatela. Jai Alai Winter Series txapelketa Gernikako Jai Alai pilotalekuan jokatu da, "Katedralean", urtarrilaren 29an hasi eta martxoaren 20ra arte. Egun horretan jokatu da final handia. Intentsitate handiko bederatzi jardunaldi izango dira, eta goi mailako Zesta Punta profesionala ikusteko aukera ezinhobeia izango dugu.

### Multzoak eta bikoteak.

Lehen aurreratu bezala, sei bikotek hartuko dute parte Jai Alai Winter Series txapelketan, A eta B multzoetan banatuta.

#### **A multzoa)**

- Barandika – Lekerika
- Olharan – Etcheto
- Erkiaga – Zabala

#### **B multzoa)**

- Goikoetxea – Aimar
- Arbe – Lopez
- Beaskoetxea – Aldazabal

Ordezkoak: Hormaetxea, Ithurria, Laduche (aurrelariak), Basque, Del Rio, Mancisidor (atzelariak)

### **Egutegia.**

#### **Ligaxka**

**Urtarrilak 29:** A1 vs A3 ( Barandika – Lekerika vs Erkiaga – Zabala ) 22:00. ETB 1en 22:00tan

**Urtarrilak 31** B2 vs B3 ( Arbe – Lopez vs Beaskoetxea – Aldazabal ) 19:30. ETB 1en 22:00tan

**Otsailak 7:** A2 vs A3 ( Olharan – Etcheto vs Erkiaga – Zabala ) 19:30. ETB 1en 22:00tan

**Otsailak 14:** B1 vs B3 ( Goikoetxea – Aimar vs Beaskoetxea – Aldazabal ) 19:30. ETB 1en 22:00tan

**Otsailak 21:** A1 vs A2 ( Barandika – Lekerika vs Olharan – Etcheto ) 19:30. ETB 1en 22:00tan

**Otsailak 28:** B1 vs B2 ( Goikoetxea – Aimar vs Arbe – Lopez ) 19:30. ETB 1en 22:00tan

### **Finalerdietako fasea.**

**Martxoak 7:** A multzoko 2.a vs B multzoko 1.a. 19:30. ETB 1en 22:00tan

**Martxoak 14:** A multzoko 1.a vs B multzoko 2.a. 19:30 . ETB 1en 22:00tan

### **Final Handia.**

**Martxoak 20:** 12:00.

### **Pilotariak:**

Xabier Barandika. Gernika-Lumo, 1990. Aurrelaria

Jean Dominique Olharan. Pau, 1989. Aurrelaria.

Aritz Erkiaga. Ispaster, 1987. Aurrelaria.

Iñaki Osa Goikoetxea. Zumaia, 1980. Aurrelaria.

Jokin Arbe. Markina-Xemein, 1991. Aurrelaria.

Diego Beaskoetxea. Miami, 1981. Aurrelaria.

Unai Lekerikabeaskoa. Gernika-Lumo, 1994. Atzelaria.

Nicolas Etcheto. Ahetze, 1989. Atzelaria.

Jon Zabala. Markina-Xemein, 1988. Atzelaria.

Aimar Aldazabal. Berriatua, 1982. Atzelaria.

Imanol Lopez. Zumaia, 1986. Atzelaria.

Ibon Aldazabal. Berriatua, 1987. Atzelaria.